

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak 9 proiektu aurkeztu ditu 2007-2013ko Europako POCTEFA programaren 3. deialdian

Nafarroako proposamenen artean turismoaren, nekazaritzaren, i+G proiektuen, ondarearen, musikaren eta urritasunen bat dutenen laneratzearen alorreko mugaz gaindiko lankidetzaproiektuak daude.

Viernes, 07 de febrero de 2014

Espainia, Frantzia eta Andorra arteko Lurralde Lankidetzaren Programa Eragileak (POCTEFA) 38 proiektu jaso ditu 2007-2013 denboraldiko hirugarren eta azken deialdietan. Horietatik bederatzitan Nafarroak parte hartzen du.


Laguntzen funtsa gauzatu ez diren proiektuen bidez hornitzen da, eta baldintza zera da, ekintzek deialdian zehaztutako epeen barruan egin beharreko jarduerak amaitzen direla eta horiek behar bezala amaitzeko finantza-bideragarritasunik badagoela bermatzea.

POCTEFA garapeneko Europako funtsek finantzatzen dute (EGEF), eta helburua Frantziako eta Espainiako eragile sozioekonomikoen arteko lankidetzak sustatu eta finantzatzea da, bien arteko mugaren inguruan proiektuak batera (proiektu bakoitzeko Espainiako eta Frantziako kide bana edo mugaz gaindiko Frantziako eta Espainiako erakunde juridiko bat) gauzatu ahal izateko.

Finantzatzioa eskatzeko Nafarroak aurkeztu dituen ekimenen artean turismoaren, nekazaritzaren, i+G proiektuen, arte-ondarearen, musikaren eta urritasunen bat dutenen laneratzearen alorreko mugaz gaindiko lankidetzaproiektuak daude.

Deialdiak programaren hiru ardatz nagusietako batean egindako proposamenak onartzen ditu. Honako hauek dira ardatzok:

- Mugaz gaindiko intergrazioa indartzea jarduera ekonomikoen, berrikuntzaren eta giza kapitalaren alorrean.
- Lurraldeen eta horietako natura- eta kultura-ondarearen garrantzia azpimarratzea, eta modu iraunkorren babestu eta kudeatzea.
- Biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzea lurraldeak egituratzeko eta



Proiektuetako bat mendiko nekazaritzari buruzkoa da.

garapen iraunkorrerako estrategia bateratuen bidez.

Proiektuak hautatzeko prozesua datozen hilabeteetan gauzatuko da, eta 2014ko udaberrian emango da erabakiaren berri.

Eskualdeka, Akitania da proiektu gehienetan (24) parte hartzen duen eskualdea, ondoren Euskal Autonomia Erkidegoa (18), Aragoi (17) eta Midi-Pyrénées (16). Kataluniak eta Nafarroak bederatziz proiektutan parte hartuko dute eta Languedoc-Roussillonek hirutan.

POCTEFA programaren aurreko bi deialdietan 244 proiektu jaso ziren guztira, eta horietatik 133 programatu ziren 2007 eta 2011 artean.

Nafarroa partaide duten programak

Pirinioetako nekazaritzako sektoreak: INITIA (Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutua) Languedoc-Roussillon eta Midi-Pyrénées eskualdeetako kideekin aritzen da lankidetzan. Pirinioetako nekazaritzako sektoreek, lehiakorrak izaten jarraitzeko, estrategia berriak garatzeko duten premian oinarritzen da proiektua, izan ere, globalizazioak eta merkatuen banaketak horretara behartzen dituzte. Horretarako, nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien sektoreak ulertu, aztertu eta aldatzeko baterako gaitasuna indartzea proposatzen da, Pirinioetako eragileen hautaketa estrategikoak optimizatzen.

Eugi eta Banka mugaz gaidiko lurraldeetako ondarearen garrantzia azpimarratzea. Eugiko Kontzejuaren, Garazi Baigorri Herri elkargoaren (Akitania) eta Banka udalerraren (Akitania) arteko proiektua da. Helburua Eugi eta Banka mugaz besteko udalerrien arteko lankidetzaren indartzea da, historiari eta ingurumenari dagokionez interesgarria den ibilbide bat finkatuta. Partekatzen duten Kintoa inguruak meatzaritzako eta metalurgiako baliabideak, meatzeak, labeak eta bideak ditu, Errege Arma-Ola eta Labe Garaia sortzen lagundu zutenak.

Musika garaikidea. Iruñeko Udalaren eta Baionaren arteko musikaren eta mugimenduen proiektua da, Baionako eta Iruñeko gazteak protagonista dituenak. Helburua musika garaikide motak eta bi hirietako gazte musikarien taldeak sustatzea da, baita horiei musikaren eta enpresen alorreko prestakuntzarako tresnak ematea ere, sortutako musika zabal dezaten.

Udalen arteko mugaz gaidiko kultura-lankidetzaren. Obanos eta Mairie de la Bastide Clairence (Akitania) herrietako Udalek parte hartzen dute proiektuan, eta bi udalen arteko kultura-harremanak finkatzeko neurriak diseinatu dira.

Unibertsitateen arteko lankidetzaren. Nafarroako kidea NUP da, eta Campus Iberus (Aragoi), Tolosako Unibertsitatea (Midi-Pyrénées) eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatea (Akitania) ditu proiektukide. Proiektuaren xede nagusia ikerketaren eta berrikuntzaren alorrean mugaz gaidiko lankidetzaren sendotzea da EBRos Mugaz Gaidiko Campuseko Unibertsitateen artean. Iberus Nazioarteko Bikaintasunaren Campusak (Zaragozako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Errioxako Unibertsitatea eta Lleidako Unibertsitatea) eta Paueko eta Tolosako Unibertsitateetan dituen hedapenek osatzen dute. Aldi berean, unibertsitateen eta eskualdeetako industria-sarearen arteko elkarrekintza hobetzea ere bada proiektuaren egitekoa.

Eraikuntza-sistema berrietan lankidetzaren aritzeko proiektua. Fundación Laboral de la Construcción da Nafarroako partaidea, eta ESKAL EUREKArekin (Akitania) batera ariko da elkarlanean. Helburuetako batzuk dira LEAN eraikuntzaren sistemak aztertu eta horiek berrikuntza-proiektuak kudeatzeko BIM prozesuan sartzea da. BIM prozesuak eraikin baten proiektua azaltzeko maketa digitala erabiltzen du, informazio tekniko eta antolaketari eta finantzei buruzko informazio guztia barne hartuta duena.

Urritasunen bat dutenak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektua. Koine-Aequalitas fundazioa eta Arete Activa dira Nafarroako partaideak, eta Aragoiko eta Akitaniako partaideak izango dituzte proiektukide. Mugaz gaidiko ibilbideak, tresnak eta baliabideak garatzea da proiektuaren asmoa,

urritasunen bat dutenak gaitzen, horien mugikortasuna sustatzen eta gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko. Tresna horien bidez lortzea espero den emaitza urritasunen bat dutenen bizi-kalitatea hobetu eta eraberritzeko elementu iraunkorrak sortzea da.

Lizarreta mendatea biziberritzeko proiektua. Etxalarko Udalaren eta Hego lapurdiko hirigunearen (Akitania) arteko proiektua da. Lizarreta mendatea Sararen eta Etxalarren artean dago. Kultura bateratua, espezie migratzaileen behaketa zientifikoa eta pagausoaren sare bidezko ehiza tradizionala bateratzen dituen ingurua da. Helburua lurraldea biziberritzeko eta denboraldiz kanpo fluxu ekonomikoak sortzen dituen turismo iraunkorra eskaintzeko gai den baterako proiektu bat gauzatzea da. Helburu ekonomiko horrez gain, Lizarreta mendatetik pasatzen diren espezie migratzaileak behatzeko proiektu zientifiko bat egiteko asmoa ere badago.

Kalitatezko nekazaritzako elikagaien sektorea. FUNDAGRO eta Midi-Pyrénées, Aragoi eta Errioxako kideak ariko dira lankidetzan proiektu horretan. Kalitatezko nekazaritzako elikagaien sektorea bultzatzea du helburu, bertako produktuak eta parte hartzen duten lau eskualdeetako produktu tradizionalen garrantzia azpimarratuta. Mugaz gaindiko ekintza partekatuen bidez, proiektuak tradizioaren irudia zabaltzen eta eskualdeetako kalitatezko produktuen balioa nabarmentzen laguntzen du.